



2025-1-17

PRENTSA-OHARRA

STEILASEK ETA EHIGEK POSITIBOTZAT JOTZEN DUTE EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAREN EPAIA, ETA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA LEHENETSIKO DUEN PLANGINTZA-DEKRETU BERRI BAT EGITEA ESKATZEN DIOTE HEZKUNTZA SAILARI

Steilasek eta EHIGEk otsailaren 28ko 30/2023 Dekretuaren (antolamendu- eta plangintza-irizpideak ezartzen dituen Dekretua aldatzen duena) aurka aurkeztutako demandaren ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak epaia eman du, eta Dekretu hori erabat deuseztat jo du.

Dekretu hori funtsezkoa da hezkuntza-sistema antolatzeko, haren mende baitaude, adibidez, hezkuntza-sistemaren plangintza, hezkuntza-eskaintza eta ikasleen ratioak.

STEILASek eta EHIGEk azaldutako inpugnazio-arrazoiek zalantzan jartzen zituzten dekretuaren legezkotasuna eta edukiak. Edukian sartu gabe, lehen argudioa nahikoa izan da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak dekretu hori baliogabetzeko.

Hala, prozedurari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak adierazi du Eusko Jaurlaritzak ez zituela bete arauak ezarritako gutxienekoak, hala nola dekretu-proiektuaren txostenaren justifikazioa, Euskadiko Eskola Kontseiluaren partaidetza-prozedura errespetatzea edo Eusko Legebiltzarrera bidaltzea.

Azpitarratu behar da Eusko Jaurlaritzako bi erakundek, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, proposamenaren justifikaziorik ezaz ohartarazi zutela. Hala ere, dekretua argitaratzea erabaki Hezkuntza sailak. Presaka zihoan.

Demanda baietsi da lehenengo argudio formalarekin, eta horrela ez dira baloratu Steilas-ek eta EHIGEk ere demandan aurkeztu zituzten eduki hauek.

1. **Plaza publikoen orde z "funts publikoek eutsitako plazak" jartzea.** Ikaspostu publikoen bermea, LOEren 109. artikulua arabera nahitaez bete beharrekoa, erabat lausotuta geratzen zen dekretu honetan. Oinarrizko araudiak "plaza publiko nahikoak bermatuko direla" dioen lekuan, dekretuak "funts publikoekin eutsitako plazak" aipatzen zituen, eta hori ez da gauza bera.
2. **"Euskal hezkuntza-zerbitzu publikoa".** Dekretu horren bidez, titulartasun publikoko zentroak titulartasun pribatuko zentroekin parekatu nahi ziren, Euskal hezkuntza-zerbitzu Publikoaren bidez. Aurkeztutako demandak horrelako organo bat legez kanpokoa dela azpitarratzen du, ez baitu legezko tokirik. Legea argia da: ikastetxe pribatuak hezkuntza-itunen bidez ematen dute hezkuntzaren zerbitzua, eta ez dago besterik. Ikastetxe publikoak eta zentro pribatuak parekatzea ezinezkoa da, besteak beste, administrazio publikoak ez duelako eskumenik zuzenbide pribatuak arautzen dituen enpresak zuzentzeko edo horietan esku hartzeko.



3. Dekretu horrek **hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea baliogabetu zuen**, eskola-maparen jarraipena egiteko lurralde-batzordeak kendu baitziren. Atzerapauso demokratikoa da hori, araz eragozten diena hezkuntza-eragileei modu aktiboan parte hartzea hezkuntza-eskaintzaren prestaketan, kontrolean eta jarraipenean.

Dekretuak, halaber, itunpeko eskoletako haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako geletan taldeak sortzeko gutxieneko ikasle kopurua murriztu zuen 17tik 13ra.

Azken batean, dekretua argitaratu aurretik zortzi zirriborro izan zituen, eta patronalaren neurria egina zegoen: eskola publikoa eta pribatua Euskal hezkuntza-zerbitzu publikoaren bidez parekatzea, taldeak sortzeko gutxieneko kopurua jaistera, eta abar. Eta hori guztia itunpekoaren gehiegizko eskaintza gordinarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epai horrek segurtasun juridikorik eza sortzen du, dekretu honetan oinarritzen baita hezkuntza-sistema osoaren plangintza.

Jakin dugu Eusko Jaurlaritzak errekurtsioa aurkeztuko duela epaiaren aurka. Azkenean hala egiten badu, epaiaren behin-behineko betearazpena eskatzeko aukera aztertuko dugu. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu epaia bere gain hartzeko eta onartzeko, ez luzatzeko haren betearazpena errekurtsio antzuekin eta Euskal Eskola Publikoa lehenetsiko duen plangintza-dekretu berri bat egitea.



NOTA DE PRENSA

STEILAS Y EHIGE VALORAN POSITIVAMENTE EL FALLO DEL TSJPV Y EXIGEN AL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN QUE ELABORE UN NUEVO DECRETO DE PLANIFICACIÓN QUE PRIORICE LA ESCUELA PÚBLICA VASCA

Tras la demanda presentada por Steilas y EHIGE contra el Decreto 30/2023, de 28 de febrero, de modificación del Decreto por el que se establecen los criterios de ordenación y planificación, el TSJPV ha emitido un fallo en el que declara nulo de pleno derecho dicho Decreto.

Este decreto es fundamental en la organización del sistema educativo, porque de él dependen, por ejemplo, la planificación del sistema educativo, la oferta educativa y las ratios de alumnas y alumnos.

Los motivos de impugnación expuestos por STEILAS y EHIGE cuestionaban tanto la legalidad como los contenidos del decreto. Sin llegar a entrar en el contenido, el primer argumento ha sido suficiente para que el TSJPV anule el Decreto en cuestión.

Así, a nivel de procedimiento, el TSJPV señala que Gobierno vasco no cumplió los mínimos establecidos por la norma, como la justificación del informe del proyecto de decreto, respetar el procedimiento de participación del Consejo Escolar de Euskadi, o remitirla al Parlamento vasco.

Hay que subrayar que dos organismos del Gobierno vasco como la Oficina de Control Económico del Departamento de Economía y Hacienda, así como la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi ya alertaban sobre la falta de justificación de la propuesta. Aún y todo decidieron publicar el decreto. Corría prisa.

Se ha estimado la demanda con el primero de los argumentos formales, y así, no han llegado a valorar los siguientes contenidos que Steilas y EHIGE también presentaron en la demanda.

1. **Sustitución de plazas públicas por “plazas sostenidas por fondos públicos”**. La garantía de plazas públicas, que es de obligatorio cumplimiento según el artículo 109 de la LOE, quedaba totalmente diluida en este decreto. Donde la normativa básica dice que “se garantizarán suficientes plazas públicas”, el decreto hablaba de “plazas sostenidas con fondos públicos”, que no es lo mismo.
2. **“Servicio Público Vasco de Educación”**. Este decreto pretendía equiparar los centros de titularidad pública con los centros de titularidad privada a través del Servicio Vasco de Educación. La demanda presentada incide en la ilegalidad de un órgano de estas características porque no tiene encaje legal alguno. La ley es clara: los centros privados prestan el servicio de la educación a través de los conciertos educativos y no hay más. La equiparación de centros públicos y centros privados no es posible entre otras cosas porque la administración pública no tiene competencia para dirigir o intervenir en empresas que se rigen por el derecho privado.
3. Este decreto anuló la **participación** de la comunidad educativa al suprimirse las comisiones territoriales de seguimiento del mapa escolar. Todo un retroceso democrático que impide



reglamentariamente a los agentes educativos participar de forma activa en la elaboración de la oferta educativa, su control y seguimiento.

El decreto también redujo el número mínimo de alumnas y alumnos para la creación de grupos en las aulas de infantil y primaria de las escuelas concertadas, pasando de 17 a 13.

En definitiva, este decreto, que tuvo ocho borradores antes de que fuese publicado, estaba hecho a medida de la patronal, como la equiparación de la escuela pública y la privada a través del Servicio Público Vasco de Educación o el descenso del número mínimo para la creación de grupos. Y todo ello con una sobreoferta brutal de la concertada.

Este fallo del TSJPV genera una inseguridad jurídica ya que en este Decreto se fundamenta la planificación de todo el sistema educativo.

Hemos sabido que el Gobierno Vasco va a recurrir el fallo. Si al final lo hace, valoraremos solicitar la ejecución provisional de la sentencia. En este sentido, pedimos al Gobierno Vasco que asuma y acate la sentencia, no prorrogue su ejecución con recursos estériles y elabore un nuevo decreto de planificación que priorice la Escuela Pública Vasca.